

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Seberino Onaindia Landeta

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1920-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1920an jaio zen Asilo Kalzada kolean, gaur egungo Juan Kaltzada, Irlandia arrandegia dagoen lekuan. Bere aita Ibarruritik (gaur egun Muxika) lurretara joandakoa zen eta ama nabarniztarra. 11 senidetatik 5. da bera. Bere anaia bat, Dioni Onaindia, pilotari profesionala izan zen, orduko onenetakoa. Bere aitak etxean okindegia eta biltegia zituen (zahi, baba, garagarra, ereiteko patata...). Bere neba-arreba zaharragoak Arratzun jaio ziren, bere aitak Nabearen errota alokatu baitzuen bertan okindegia jartzeko. Bere aita Gernika-Lumoko ANV-EAEko presidente izan zen; 13 hilabete igaro zituen preso. Bere osaba betek ere okindegia zuen: Aulestin, Eibarren, Gizaburuagan... Bonbardaketak kolean harrapatu zuen, eta babeslekuan lekuri ez zegoela-eta, alde egin zuen solorik solo. Horrek salbatu zuen, babesleku hartakoak hil egin ziren-eta. Beraien etxea zutunik gelditu zen bakarrenetakoa izan zen. Ostein, bera eta aita Gatikara eta handik Barakaldora joan ziren, han ere okin lanetan ibili ziren; Bilbo hartu zutenean Gernikara bueltatu ziren. Baldatikako Luis Gomezak Gernikan zuen okindegian hasi zen lanean. Beranduago, Eibarreko osaba etorri eta Gizaburuagako Laizoleta errota-okindegira joan zen lanera. Bere arrebaren semea da Javier Agirre Onaindia, "el vasco" edo "mexikarra" ezizenez ezaguna den futbol-entrenatzaile mexikarra. Azken urteotan Kaltzada egoitzan bizi da.

Zintak

GER-031

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-05-18
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

GER-032

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-05-20
- **Iraupena:** 143 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

GER-035

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-05-28
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. "Olleridxie"n jaioa

- **Erref:** GER-031/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>11 neba-arreba izan ziren; bera bosgarrena. Bera Gernikan jaio zen, baina bere neba-arreba batzuk Arratzun jaio ziren ber aitag Nabearen errota alokatu baitzuen okindegia jartzeko. Bere gurasoak Juan Kaltzada kaleko etxe batera joan ziren bizitzera. Bertan batzarkideak batzen ziren taberna eta lapikoak egiteko tailerra zegoen "olleridxie". "Olleridxie" zegoen etxea erosi zuten bere gurasoek.</p>

2. Jaiotetxean okindegia eta biltegia

- **Erref:** GER-031/005
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:13:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Asilo Kalzada kalean jaio zen. Bere aitak okindegia eta biltegia (zahi, baba, garagarra, ereiteko patata...) jarri zuen. Bizikletaz zaku-banaketa egiten zuen herrian zehar.</p>

3. Ama Birjinaren kapa

- **Erref:** GER-031/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gernikako abadearen arrebak, doña Piak, Errigoitiko Ama Birjinaren kapa jarri zion Gernikakoari eta Gernikakoa Errigoitikoari. Doña Pia nesken maistra zen.

4. Anaia pilotari profesionala

- **Erref:** GER-031/012
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:41:23. **Bukatu:** 00:44:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pasealekuko eskolan ikasi zuen. Hasiera baten mutil eraikina eta frontoia baino ez zegoen. Denak aritzen ziren pilotan. Bere anaia, Dioni, pilotari profesionala izan zen, Atano III.aren mailako pilotariekina batera.

5. Pasealekuko eta Otazuareneko eskolak

- **Erref:** GER-031/015
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:55:38. **Bukatu:** 00:57:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Pasealekuko eskoletan nesken alderdia eta mutilena zegoen. Seberinok dio ez zuela askorik ikasi, gerora beraien etxe ondoko Otazuarena joan zen bertako eskola partikularretara. Bertako alaba batek ematen zituen eskolak.

6. Maisu erdaldunak

- **Erref:** GER-031/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:02:23. **Bukatu:** 01:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Pasealekuko maisuak erdaldunak ziren, euskaraz suntsitzera etorri zirela dio. Hala ere, berak izan zituen maisuak ez ziren euskararen kontrakoak.

7. Artilezko pilotak

- **Erref:** GER-031/021
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pasealekuko eskoletan Gernikako umeak baino ez ziren batzen. Pilotaka jolasten ziren batez ere. Pilotak amari osturiko artilearekin eta kortxo zati batekin egiten zituzten.

8. Gaztetako ibilerak

- **Erref:** GER-031/023
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 01:12:47. **Bukatu:** 01:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak: madari-lapurretan, mojen komentura sartu nahian egindako ebakia, foralekin bizitakoak... Gaiztakeria asko egindakoak dira. Bere anaiak atzamar batzuk galdu zituen umetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com